

Usurbilgo Udala

## **USURBILGO ARTZABAL ERAIKINEAN DAGOEN “GURE PAKEA” ETA AGINA AUZOKO “ARRATE” JUBILATUEN LOKALETAN ILE-APAINDEGI ETA MANIKURA-PEDIKURA ZERBITZUA ADMINISTRAZIO KONTRATU BEREZI BIDEZ EMATEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK**

### **I.- XEDAPEN OROKORRA**

Orrri hauen helburua hauxe da: Usurbilgo udalerrian, GURE PAKEA elkartearen egoitza den ARTZABAL baserrian ileapaindegi eta manikura-pedikura zerbitzuak esleitzeko lehiaketa irekia arautzea, eta Agiña auzoko ARRATE elkarteetan kokatzen den ile-apaindegi zerbitzuak esleitzeko lehiaketa irekia arautzea, administrazio kontratu berezi bidez aurrera eramango dena.

### **II.- ONURADUNAK**

Udalerriko jubilatuek izango dira zerbitzuaren onuradunak. Esleipendunaren esku geratuko da GURE PAKEA eta ARRATE elkarteetan kokatutako ile-apaindegi zerbitzuen eskaintza jubilatuta ez dauden herritarrei zabaltzea.

Zerbitzuen eskaintza, jubilatuta ez dauden herritarrei zabaltzen bada, jubilatuek izango dute lehentasuna zerbitzua erabiltzeko orduan. Lehentasun honen xehetasunak esleipendunak jubilatuen elkartearekin adostu beharko ditu.

### **III.- BALDINTZAK**

#### **A) LANGILEGOA**


Esleipendunak, zerbitzua betetzeko kontratatua duen langilego guztiarekiko, Laneko Legerian eta Gizarte Segurantzarenean eta bereziki, Laneko Arriskuen Prebentzio arloan indarrean dauden xedapen guztiak betetzeko obligazioa izango du.

Zerbitzua ematerakoan, indarrean dagoen osasun eta higiene araudia ere bete beharko du.

Esleipendunak eta baita kontratatutako langilegoak era berean jarduera euskaraz burutzeko gai izan beharko dute, Usurbilgo Udalaren Kontratu Administratiboetan zehazturiko xehetasunak betez.

Esleipenduna, zerbitzua betetzeko garatzen dituen lanen eta eskaintako prestazio eta zerbitzuen erantzule izango da eta baita izaten diren gabezien, akatsen, erabilitako metodo desegokien edota erabaki okerren ondorioz gertatutakoaren erantzule ere.

Kontratatistak obligazioa izango du bere azken helbidea eta telefonoa Udalaren ezagutzapean jartzeko.



Usurbilgo Udala

## **B) PUBLIZITATEA ETA DIBULGAZIOA**

Zerbitzuaren titularitatea Udalarena da, beraz, zerbitzua kudeatuko duen enpresa edo pertsona beharturik dago honako hauek betetzera:

Zerbitzuaren irudiarekin ezingo da publiziterik egin erakunde edo pertsona esleipendunaren interes partikularrerako, Udalaren baimenik gabe.

Udalaren baimenarekin egin daitekeen publizitatean, beti adierazi beharko da zerbitzuaren Udal izaera.

Edozein kasutan udal arauak errespetatuz egingo da publizitatea.

## **D) INSTALAZIO ETA MAKINERIAREN MANTENIMENDUA**

Esleipendunak egoera onean zaindu eta mantendu beharko ditu zerbitzuak dituen ondasunak eta instalazioak. Horretarako instalazioen eta ekipamenduen mantentzea eta iraunaraztea bermatzeko beharrezko diren gastuak bere kargura izango dira, legez jabearen ardurakoak direnak izan ezik.

Usurbilgo Udalak lokalak Baldintza Teknikoen orrietako I. Eranskinean zehazten diren ondasunez horniturik utziko ditu. Kontratuari atxikiko zaio, eranskin moduan, Udalak kontratistaren esku uzten dituen gauzen inbentarioa. Esleipendunaren kargura joango da ekipamendu guztia osatzen duten instalakuntza eta makineria guztiaren mantenimendua (tresna elektrikoek konponketei eta ordezkatzeei Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietan xedatutakoa aplikatuko zaie). Kontratu epea bukatzeaz dagoenean berriro ikuskapen bisita luzatuko da, Udalari ondasun guzti hauek hartu zituen moduan eta erabiltzeko gai itzultzen dituela egiaztatuko delarik. Ondasunik faltako balitz edo modu desegokian edo txarragoan baleude, Udalari berauek birjartzeko diru kopurua eman beharko dio edo Udalak bermetik exekutatu ahal izango du; erabilera arruntaren ondoriozko kalteak salbu.


Usurbilgo Udalaren berariazko baimen espresurik gabe ez da inolako obrarik egiterik izango ez eta ekipamenduak aldatzerik ere.

## **E) GARBIKETA**

Esleipendunak Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietan zehazten den eran, ARTZABALGO ileapaindegi eta ondoko gela garbitu behar ditu, baita Arrate elkartekoa ere, eta garbitasun egoera egokietan eduki behar ditu. Erabiltzen duen tresneria, materiala, altzariak etab. Beti higiene eta garbitasun baldintza onetan eduki beharko ditu. Zentzu horretan kontratista-esleipendunari dagokio garbitasun produktuak bere kargura erostea.

Horretaz gain, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduak xedaturikoa bete beharko du (ordutegi, zarata, isurketa eta osasun baldintzei dagokienean).

Lokalean aktibitatearen ondorioz sortu daitezkeen hondakinak horretarako Udalak prestatutako sistema, leku eta ordutegian atera beharko ditu esleipendunak derrigorrez ondo sailkatuta, jubilatuen elkartarekin edo garbitasuna aurrera eramango duen pertsonarekin besterik adostu ezean. Hau egiten ezean, Usurbilgo udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritako zehapen prozedurak abiatuko dira.



Usurbilgo Udala

## **F) JENDEARI ARRETA**

Esleipendunak kontrataturiko lanak arreta osoarekin burutu behar ditu, erabiltzaileei zerbitzua bermatuz eta nazionalitate, arraza, sexu baldintza edota beste edozein ezaugarriatik diskriminatu gabe eta hauen eskubideak errespetatuaz: adierazpen askatasuna, tratu zuzena etab.

## **G) INGURUMEN KUDEAKETA**

Esleipendunak ingurumenarekin errespetuzko zerbitzu eskaintza egiteko, kontuan hartu beharko ditu naturaren eta ingurumenaren balioak lehiaketako xede diren instalazioetan, batez ere hondakinen atez ateko bilketa eta energi kontsumoen arrazionalizazioari dagokionez.

## **H) ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA**

GURE PAKEA eta ARRATE elkarteetako ile-apaindegi zerbitzuak zehaztutako gutxieneko eta gehieneko ordutegi barruan eman beharko dira. Esleipendunak kontratuan zehar ordutegi muga barruan aldaketarik egin nahi izanez gero Udalaren baimena beharko du.

GURE PAKEA elkarteko asteko ile-apaindegi eta manikura-pedikura zerbitzuko gutxieneko ordutegia eta egutegia:

- Ostegun, ostiral eta larunbatetan 15 ordu.

GURE PAKEA elkarteko asteko ile-apaindegi eta manikura-pedikura zerbitzuko gehieneko ordutegia eta egutegia:

- Astelehenetik larunbatera 44 ordu.

ARRATE elkarteko asteko ile-apaindegi zerbitzuaren gutxieneko ordutegia eta egutegia:


- Ostiral eta larunbatetan: 8 ordu. Hitzordu sistema bitartez

ARRATE elkarteko asteko ile-apaindegi zerbitzuaren gehieneko ordutegia eta egutegia:

- Astelehenetik larunbatera: 40 ordu.

## **OPORRAK**

Ileapaindegi zerbitzua itxita egongo da 15egunez abuztuan. Itxialdi egutegia jubilatuen bi elkarteei eta udalari jakinarazi beharko zaio, azken honek baimendu dezan.



Usurbilgo Udala

## I. ERANSKINA


### LOKALEAN ZERBITZUA EMATEKO DAGOEN TRESNERIA ETA EKIPAMENDUAREN ZERRENDA.

#### 1. GURE PAKEA elkarteko ile-apaindegi zerbitzua.

- Buru-garbitzekoa (2)
- Kaskodun ile-lehorgailu (2)
- Eskuko ile-lehorgailu (3)
- Baporizadorea (1)
- Eserleku gorri (3)
- Eserleku beltz (2)
- Butaka gorria (1)
- Armairua (1)
- Altzari osagarria (1)
- Kristalezko apalak (2)
- Karro gurpildunak (2)
- Orraziak (4)
- Guraizea (2)
- Erruluak (2 dozena)
- Bigudiak (2 dozena)

#### 2. GURE PAKEA elkarteko manikura-pedikura zerbitzua.

- Pedikura egiteko silla, (*podologiako esku ohea*) (1)
- Taburete txikia (1)
- Aulkia (2)
- Armairu txikia (1)
- Esekitokia (1)
- Eskuak garbitzeko konketa (1)
- Azazkal mozteko amerikarra (1)
- Kutikularentzat azazkal-aliketa (1)
- Amerikano manikurarentzat azazkal-aliketa (1)
- Display maskur-ebakigailu (1)
- Medisana medistyle (1)
- Berniza kentzekoa (1)
- Gizonezkoei azazkalak moztekoa(1)




Usurbilgo Udala

## 2. ARRATE elkarteko ile-apaindegi zerbitzua.

- Buru garbitzekoa (1)
- Kaskodun ile-lehorgailua (2)
- Butaka beltzak (2)
- Butaka gorriak (2)
- Karro gurpildunak (4)
- Ispiluak (3)
- Apaldun armairua (1)
- Paretoko armairu zintzilikagailu txikia (1)
- Paretoko altzaria (1)
- Aulki beltzak (2)
- Aulki gorriak (1)
- Forjazko apala (1)
- Esekitokiak (3)
- Forjazko mahaia (1)
- Humifikadorea (1)
- Erlojua.(1)

Goran aipatzen den tresneria zerrenda Udalaren jabetzakoa da. Tresneria honetaz gain beste tresnaren bat beharko balu esleipendunak, berari dagokio erostea, lizitazioa bukatzean, bere jabetzakoak izango direlarik. Hauen mantentzea eta iraunaraztea bermatzeko beharrezko diren gastuak bere kargura izango dira, legez jabearen ardurakoak direnak izan ezik.

Zerbitzuen kudeaketaren zaintza, ikuskapena eta fiskalizazioa egiteko berariazko ahalmena duen udal zerbitzuetako pertsonalak une oro lokalera sartu ahal izango du. Ahalmen bera izango du jubilatuen etxeko Zuzendaritza batzordeburuak.



Usurbilgo Udala

## II. ERANSKINA.

### GURE PAKEA ETA ARRATE ELKARTEETAN KOKATUTAKO ILE-APAINDEGI ZERBITZUETAN JUBILATUEI APLIKATU BEHARREKO PREZIOEN ZERRENDA.

Garbitu eta markatu (eskuzko lehorgailua)	13 euro
Garbitu eta markatu (erruluak)	12 euro
Ilea moztu (emakumezkoak)	10 euro
Gizonezkoei ile moztu	9 euro
Ilea tindatu	14 euro
Permanentea	20 euro
Metxak	20 euro
Ilea distiratzea	6-19 euro
Plis-a	2 euro
Ile-egokitzaila	2 euro
Bitaminak	3 euro

### MANIKURA ETA PEDIKURA ZERBITZUETAN JUBILATUEI APLIKATU BEHARREKO PREZIOEN ZERRENDA

Manikura	6 euro
Pedikura	6 euro
Makillajea	6 euro
Depilazioa bekainak edo bibotea	3 euro
Depilazioa bekainak, kokotxa, bibotea	10 euro

Zerbitzuan zehar zerrendan zehazten ez diren beste zerbitzu batzuk eskaintzea komeni bada gehitu litezke zerrendara, beti ere, Udala, Jubilatu elkarteko batzordea eta esleipendunaren artean adostuta.